

Eguraldia



**Elurrak N-1
Iruñea-Donostia
eta Bilbo-Gasteiz
errepideak
itxiarazi ditu** •19

'Lasa-Zabala auzia' ♦

Galindo: «Guardia zibilek ez zituzten errefuxiatuak zelatatzen»

Garai hartan Intxaurrondoko komandantziako burua beste bat zela nabarmendu zuen

■ ENRIQUE RODRIGUEZ GALINDO Guardia Zibileko jeneralak ukatu egin zituen atzo bere eta bere agindupekoen aurkako salaketak, *Lasa-Zabala auzian* egindako lehen deklarazioan. Galindoren esanetan, guardia zibilek Ipa-

rraldean errefuxiatuak ez zituztela zelatatzen esan zuen, eta gertaera horiek jazo zirenean bera ez zela Intxaurrondoko komandantziako burua. Bayori ezer ezin diola aurpegiratu esan zuen, eta hau gaineratu: «Bayo eta Dorado guk

genituen gizon eraginkor eta leialenak ziren. Beraiek bezalako sei gizonekin Hego Amerika ere konkistatzeko gai izango ginatke». Gaur berriro deklaratu beharko du Galindok. •6-8

Axun Erzibengoa - Eider Goenaga berriemalle bereziak

politika

■ EH: «Egungo markotik XXI. mendeko erronkei aurre egingo zaiela pentsatzea da irrealia» •10

■ Arizkurenek 46 egun daramatza gose greban, eta jarraitzeko asmoa agertu du •12

gizartea

■ Elikadurako segurtasun agentzia propioa izatearen alde agertu da Jaurilaritza •20


ekonomia

■ 2000ko negoziazioan soldatak jaitsi nahi izatea leporatu dio ELAk Confebaski •23

■ Bokartaren harrapaketa murritztea eztabaidatuko dute gaur eta bihar Bruselan •24

kultura

■ Aranzadik liburutegia zabaldu du Interneten, 'Munibe' aldizkariaren 50. urtemugan •42



Martin Ugalde 'honoris causa'

■ «*Maitasun baten historia* izan daiteke egokia euskarazko kazetaritzaren historia laburtxo honi izena emateko»

■ EUSKAL HERRIKO Unibertsitateak *honoris causa* doktore izendatu duen lehen kazetaria da Martin Ugalde atzodanik. EUSKALDUNON EGUNKARIAKO ohorezko lehendakaria «informazioaren esparruan egindako lan handiagatik eta, bereziki, euskara komunikabideetan garatzeko egindakoagatik» egin dute *honoris causa* doktore. Ekitaldian EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxe ere izan zen. Ibarretxeren hitzetan, «sakon-sakonean bide bakarrari heldu dio Martin Ugaldek: duintasunari».

► 'Etika eta estetika?

Joan Mari Torrealdai

EDURNE KOCH

• 16-18

KPIren igoerak Madrilen iragarpenak gainditu ditu

■ Bizkaian %0,3 eta Araban, Gipuzkoan eta Nafarroan %0,1 igo da KPI azaroan •23